

**Ebazpena: R47/2022**

**Espedientea: 18/2013**

Gasteizen, 2022ko irailaren 13an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatua– honako erabaki hau hartu du:

### **ERABAKIA**

Arabako Foru Aldundiak (aurrerantzean, AFA), SVSLUren zerga-egoitza 2012ko irailaren 21etik aurrera aldatzearen inguruan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurrean aurkezturiko gatazkari buruzkoa. Gatazka Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 18/2013 espediente-zenbakiarekin.

### **AURREKARIAK**

1.- SVSLU 2012ko irailaren 21ean eratu zuen SVSRLk. Bazkide horrek Frantziako nazionalitatea du, eta Lyonen zuen egoitza soziala. Planteatutako gatazkaren ondorioetarako, honako hauek dira SVSLUren datu garrantzitsuenak:

- a) Egoitza soziala eta fiskala Gasteizko (Araba) toki-erakunde txikian du.
- b) SVSRL izendatu da administratzaile bakar, eta hark RMSM jauna izendatu du bere ordezkari kargu horri dagozkion eginkizunak modu iraunkorrean betetzeko; RMSMk Madrilen du zerga-egoitza.

2.- Egin beharreko egiaztapen-jarduketak egin ondoren, AFAk 2013ko uztailaren 26ko txostena egin zuen; bertan, honako hau egiaztatu zuen:

- a) SVSLUren egoitza fiskala eta soziala 2012ko irailaren 25ean FESCOOPi erosi zion industria-pabiloi batean dago, Gasteizko (Araba) toki-erakunde txikian.
- b) Eratu zenetik, SVSLU alta emanda dago Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, 861.200 epigrafean (Industria-lokalen alokairua eta beste alokairu batzuk, beste epigrafeetan zehaztu gabeak), eta ez du beste jarduerarik garatzen.
- c) 2012ko irailaren 25ean, SVSLUk pabiloia alokatzeko kontratu bat sinatu zuen NLESILSL; aurrerantzean, NLESILSL).
- d) SVSLU eta NLESILSL logistikan diharduen talde multinazional batekoak dira, GNO taldekoak hain zuzen. NLESILSLk Gasteizen (Araba) ordura arte bere bitartekoekin garatu dituen logistika-zerbitzuak eman dizkio FESCOOPi.
- e) Vitoria-Gasteizko (Araba) pabiloia alokatzeagatik, SVSLUk hiru hilean behin faktura bat egiten dio NLESILSLri. Bestalde, elektrizitatearen eta gainerako horniduren gastuak azken horrek hartu ditu bere gain.
- f) NLESILSLk Madrilen ditu instalazioak, eta egoitza soziala Ciempozuelosen dago; bat dator SVSLUren administratzailearen zerga-egoitzarekin; administratzailea, halaber, NLESILSLren administratzailea da.

g) SVSLUren kontabilitatea, fakturen jaulkipena eta zerga-aitorpenak Bilboko bulego profesional batek kudeatzen ditu, eta urteko kontuak ere bulego horretan egiten dira; administratzaileak erabakitzen duen lekuan sinatuko dira.

**3.-** 2013ko maiatzaren 9an, AFAk ZAEARI jakinarazi zion SVSLUren helbidea Ciempozuelosera (Madril) aldatzeko proposamena. Aldaketak 2012ko irailaren 21etik aurrera izango zituen ondorioak.

**5.-** Bi hilabete igaro ondoren, Ekonomia Itunarekin eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduekin bat etorrira, indarrean zeuden *ratione temporis* idazketetan, ZAEAK ez zion aipatu proposamenari erantzun; beraz, AFAk 2013ko uztailaren 29an aurkeztu zuen gatazka Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean.

**6.-** Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, bete egin da ZAEAK alegazioak egin eta froga eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea. ZAEAK izapide hori betetzeko epea luzatzeko eskatu ondoren, azkenean, amore emanda, onartu egin da AFAk proposatutako egoitza-aldaketa.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena du, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera; artikuluko horrek *zergadunen egoitza dela eta sor litezkeen desadostasunak ebazteko* eginkizuna esleitzen dio.

## 2.- Amore ematea

Interesdunik eta, bereziki, zergapekoa bera aurkeztu ez denez, ZAEAk amore emateak —AFAk egindako helbide-aldaketaren proposamena onartuta— bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratzea eragin du, eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratzen den prozeduraren xedea gerora desagertzea eta, ondorioz, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

### **ERABAKITZEN DU**

1.- Gatazka artxibatzea prozeduraren xedea gerora desagertu delako, ZAEAk amore eman baitu AFAk SVSLUren helbidea Ciempozuelosera (Madril) aldatzeko egindako proposamenean; 2012ko irailaren 21etik aurrera izango ditu ondorioak.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta SVSLUri jakinaraztea.